

Aurten ere, Lautadako ikastetxeetan aritu gara bertsolaritza lantzen

Jon Ruiz de Pinedo, Oihane Perea eta Julen Zulaika aritu dira kurtso honetan zehar GU ERE BERTSOTAN programa lantzen bosgarren eta seigarren mailatan, hamaika ikastetxetan. Bertsoak ezagutzeko, egiteko, moldatzeko ... aukera izateaz gain, aitzakia ederra izan da hizkuntzarekin jolasteko. Oso balorazio positiboak jaso ditugu ikasle, guraso zein irakasleengandik.

Azken urteetan beste elkarte eta eskola eragile askok ere euren babesa adierazi diote gure proiektuari.

GU ERE BERTSOLARI

programa "Bertsolaritzaren Curriculuma" lanean oinarritzen da eta lau eremu lantzen ditu: **MUSIKA, KULTURA, HIZKUNTZA** eta **TREBETASUN PERTSONAL ETA SOZIALAK**.



LAUTADAKO BERTSO ESKOLAK

LAUTADA

Zalduondoko bertso-eskola

-Gazteak, Udaletxean. Larunbatetan, arratsaldeko 16:30-17:30

Aguraingo bertso-eskola

-Gaztetxoak, Euskalteagian, astelehene-tan 16:45-17:45

Lautadako bertso eskola

-Helduak, Zalduondoko elkarteetan, ostialero afari orduan.



Animatu eta probatu!

LAUTADA ARABAKO BERTSO KUADRILLARTEKOAN

Haize berriarekin heldu zitzai-
gun Kuadrillartekoa aurten. Le-
hia azken egunetik kanpo utzi
eta aurreko saioak erronka mo-
dura izan baitziren. 2016ko
Arabako Kuadrillartekoan hama-
lau taldek parte hartu zuten
horietatik bi talde lautadakoak
ziren: Lupizarrateko Txerrenak
eta Lautadako sorginetxe.



Lautadakoak antolatutako topa-
keta otsailaren 13an ospatu zen
Zalduondon eta Araian. Araian

bertso-txalaparta poteoa ostean Zalduondon bazkaldu eta bertso-boloan aritu ziren. Lautadako bi taldeekin batera Legutioko bostbaieta taldeak egon ziren. Horrez gain, Lautadako bi taldeek Mendialdeko topaketan parte hartu zuten eta Lautadako Sorginetxeko taldea ere Oioneko erronkara Joan zen.

LAUTADAKO IKASTETXEEN TOPAKETA HARRESIN

Ekainaren 7an Lautadako ikastetxeetako (Aguraingo Lope de Larrea ikastola eta Lautada ikastola, Dulantzi eskola eta Araiaiko eskola) 5. eta 6. mailako gaztetxoak elkartu ziren Aguraingo Harresi aretoan, guztira 200 ume inguru elkartu ziren. Egun honetan, ikasturtean zehar ikasitakoa jende aurrean ipini zuten, horretarako gela bakoitza ikuskizun bana prestatu du: antzerkiak, Gabonetarako planen azalpena, ikastolari agurrak ... Topaketari amaiera emateko Oihane Perea, Julen Zulaika eta Jon Ruiz de Pinedo bertsoan aritu ziren.



Aniturri eta Lautadako DBH eta Batxilergoko maila batzuetako ikasleek ere bertsojaritza landu dute "Bertso bizi gazte" egitasmoari esker. Tailer horri amai-



Lautadako gaztetxoak, Gabonetan, ez zeukaten etxean geratzeko gogorik, eta oportretan etxean geratu beharrean, urtero Arabako Bertsozale Elkarteak antolatzen duen bertso abenturara joan ziren. Aurten abenduaren 28tik 30era izan da eta Labrazako (Arabar Errioxa) aterpetxean egon dira. Herria eta ingurua ezagutzear gain, bertsoez disfrutatu dute ekintza desberdinen bidez: altxorraren bila, bertso saiorako gaiak egin zituzten, bertso saioaz disfrutatu, etxekoei eginiko bertso postala. Oroitzapen polita eraman zuten Errioxako herri txiki eder horretatik, eta ez ziren esku hutsekin itzuli, begiraleek egindako DVD polit batekin itzuli ziren.

Hurrengo urtean gehiago!



Bertsoak Lautadako bazter guztietan 2015-2016 ikasturtean

2015/8/15	Araia	Gazta lehiaketa: Bertso-saioa
2015/11/6	Zalduondo	Gazteak plazara. Bertso-saioa
2015/11/14	Agurain	Euskal Herriko Bertso Eskolen Eguna
2015/11/27	Larrea	Bertso-afaria
2015/11/28	Agurain	Araba Bertsozale. Bertso-saioa
2015/12/3	Agurain	Euskararen eguna. Bertso-rap
2016/2/13	Zalduondo	Arabako Bertso Kuadrilla Artekua
2016/4/8	Ozeta	Arabako Bertsolariak OHOLTZAPE-TIK. 1. bertso-jardunaldia
2016/4/16	Ozeta	Arabako Bertso Eskolartekoa. 14-18 urteko gazteen arteko saioa
2016/4/20	Agurain	"Bertsoa Bizi Gazte". Bertso-saioa
2016/4/22	Agurain	Arabako Bertsolariak OHOLTZAPE-TIK. 3. bertso-jardunaldia
2016/4/22	Dulantzi	Araba bertsozale. Bertso-poteoa
2016/6/3	Agurain	75 ordu Euskaraz: Bertso-saio musikatua



Eskolartekoak apirilaren 16an eman zituen lehen pausoa, Ozaetako Otaza auzoko Garaion Kulturgunean. 9 gazte bildu ziren norgehiagokan, horien artean Lautadako Aitor Najera eta Markel Yoller. Euretako sei pasa ziren finalera.

Finala maiatzaren 21ean ospatu zen Aramaion, egun horretan 14-18 urte bitartekoak XIX. Bertsolarien Eskolarteko finala jokatzear gain, Arabako bertso eskolen eguna ospatu zen.



Arabako bertso eskoletako haur, gazte eta gaztetxoak el-

kartu ziren Aramaion, batzuk lau oinetan aritu ziren, beste batzuk bertso sorta jarriak kantatuz eta nagusieneke bat bateko saio petoa osatuz.

Aramaioko eta Legutioko ikasleen bertso sorta jarriak entzuteko parada izan genuen lehenik. Eta ostean, sei gazte oholtzan norgehiagokan Maria Izagak jarritako lanei fin, ausart eta arin erantzunez. Aroa Arrizubieta, Markel Yoller, Martin Abarrategi, Peru Amorrortu, Unai Anda eta Xabier Antia izan dira zortziko handian, zortziko txikian, puntu erantzunetan eta gaiari kantatuz aritu diren bertsolariak.



Azkenean, Aroa Arrizubietak jaso du Arabako mikro erreleboa, iaz garaile

suertatu zen Peru Abarrategik berak pasa dio erreleboa. Egurrezko mikro honek urtero erreleboan etxex etxe, familiaz familia, auzoz auzo, herriz herri eta Arabako kuadrillaz kuadrilla ibiltzeko helburua du, beraz... 2017ko udaberria bitartean Gasteizen izango da Aroaren sendian.

Aroa Arrizubieta eta Peru Amorrortu Bertxilika Bertso Eskolako kideak izango dira aurtengoan Euskal Herriko Eskolarteko finalean Arabako ordezkari.

Baina eguna ez zen hemen amaitu eta Aramaioko bailara honetara gonbidatutako eguzki izpi gozoen azpian herriko kaleetatik trikipoteoan ibili ziren gazteak. Ostean, oilasko paella eta gazta tarta ederra jan zu-

